

## 2020-2021 IKASURTERAKO HERRI KIROLAREN ARAU ESPEZIFIKOAK

### **1. Kirol-diziplinaren lehiaketa-jardueren izena.**

Diziplinak, benjamin, alebin, infantil eta kadete mailak (kategoria guztietan, diziplinak egiteko formatoa berdina da, aldatzen den gauza bakarra pisuak, neurriak eta distantziak dira):

Lokotx biltze:

Txinga erute:

Zaku eramate:

Ingude altxatze:

Gurdi froga:

- Giza froga:
- Lasto altxatze (infantil kategoria bakarrik):
- Sokatira

## **2. Kirol-diziplinaren lehiaketa-jardueren joko-erregelamenduak.**

Arautegi aldaketa hauek kategoria guztietan aplikatuko dira.

- Sokatira:

- "B" aukera: Nahiz eta firalarien artean kontakturik ez egon, firalariak sokan, 1,5 metroko distantziara kokatzea. Horretarako sokan, marka batzuk egingo liratekez.

Giza froga:

- Bakarkako frogetan zama lurrean utzi eta kirolaria baztertu egingo da hurrengoari lekua utziz eta segurtasun distantzia mantenduz.
- Taldekako frogetan materialaren neurriak ahalbidetzen badu, segurtasun distantziak mantentzeko, binaka edo hirunaka egingo da. Materialak ez badu ahalbidetzen, bakarkako froga egingo da.

Lokotx biltze, zaku eramate, lasto altxatze, gurdi froga eta txinga erute.

- Kirolariak bere txanda itxaroten duten bitartean eta segurtasun distantziak mantentzeko asmoz talde bakoitzeko begirale edo teknikari bat egongo da.

## **3. Kirol Federazioek antolatutako lehiaketa edo jardueretako jarduera-arauak.**

- Diziplina bakoitzeko kale bakarra edo gehienez bi kale jartzea.
- Taldean gehienez 15 kirolari.
- Instalakuntzaren barruan parte hartzen dabiltzan taldeak bakarrik egongo dira (atseden gune barik).
- Txandakako ordutegi bat jarriko litzateke, adibidez: 10:00-10:30 (6 talde); 10:45-11:15 (6 talde); 11:30-11:45 (6 talde). Txandarik txanda, 15 minutuko tarte utziko da, tarte horretan kirolariak instalakuntzan ez pilatzeko eta materiala desinfektatu ahal izateko.
- Kirol instalakuntzei dagokienean (kiroldegietako erabilera anitzeko pista, frontoia...), goiz osoko erreserbak izaten dira, lehenengo ordutik hasi eta eguerdirarte.

#### **4. Erakunde parte-hartzaileen barruan egin beharreko entrenamendu eta saioetarako jarduerak.**

Dagokion federazioko teknikariak, bere lurraldeko ikastetxe eta ikastoletatik, eskola orduetan egiten duen Herri Kirolen promozio lana da, Herri Kiroletan "sustapen lana" deritzona. Diziplinei dagokionean hemen adostutakoa bete beharko dute, ikastetxeek, guraso elkartek, kirol elkartek....

Ondorengo gomendioak proposatzen ditugu, beti ere ikastetxe eta ikastolek onartua izanda edo beraiek ezarritako protokoloetara egokitu beharra izatea. Lan hau egiteko, gure aldetik, ezinbestekoa da materiala ber-erabilia izatea:

1. Ikastetxetik egun bakarrez pasa eta kopuru gutxiko taldeetan pasatzen joatea. Taldeak pasa bitarteko denbora horretan materiala desinfektatuz. Probarik-proba, ikasleek eskuak desinfektatuko dituzte.
2. Ikastetxetik egun bat baino gehiago pasatzea, egun berean talde gutxi pasatzeko. Taldeak pasa bitarteko denbora horretan materiala desinfektatuz. Probarik-proba, ikasleek eskuak desinfektatuko dituzte.